Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

705

EBAZPENA, 2010eko urtarrilaren 14koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, euskal gizatalde eta etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka bati bi uko egin zaizkiola jakinarazteko eta bigarren ordezkoari esleitzeko dena.

Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2009ko abenduaren 28ko Ebazpenaren bitartez, euskal etxe eta gizataldeen alorrean pertsonak espezializatzeko bekak esleitu ziren. Beka horiek irailaren 30eko 221/2003 Dekretuak arautu zituen.

2010eko urtarrilaren 4an Estíbaliz Etxaide Urbietak uko egin dio esleitutako bekari.

221/2003 Dekretuaren 10.2 eta 12. artikuluetan ezarritakoaren arabera, beka hori 2009ko abenduaren 28ko esleipen-ebazpenean ordezko izendatutakoari esleitu behar zaio, uko egin duenari gelditzen zaion beka-aldiaz jabetu eta aldi horri dagokion zenbatekoa jaso dezan.

2010eko urtarrilaren 11n Araitz Rodríguez Gutierrezek ere –2009ko abenduaren 28ko Ebazpenaren bitartez lehen ordezko izendatutakoak, hain zuzen– uko egin dio bekari.

Ondorioz, hauxe

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Estíbaliz Etxaide Urbietak eta Araitz Rodríguez Gutierrezek euskal gizatalde eta etxeen eremuan pertsonak espezializatzeko beka bati uko egin diotela jakinaraztea. Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2009ko abenduaren 28ko Ebazpenaren bitartez esleitu zen beka hori.

Bigarrena.– Beka hori Nora Unzueta San Martíni esleitzea, gelditzen den beka-aldiaz jabetu eta aldi horri dagokion zenbatekoa jaso dezan.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du; hala ere, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean. Epeok ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasiko dira kontatzen.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko urtarrilaren 14a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

705

RESOLUCIÓN de 14 de enero de 2010, del Secretario General de la Presidencia, por la que se hacen públicas dos renuncias a una de las becas de especialización en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos y se adjudica a la segunda suplente.

Por Resolución del Secretario General de la Presidencia, de 28 de diciembre de 2009, se concedieron las becas de especialización en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos, reguladas por Decreto 221/2003, de 30 de septiembre.

Con fecha 4 de enero de 2010, Estíbaliz Etxaide Urbieta ha renunciado a la beca adjudicada.

En base a lo establecido en los artículos 10.2 y 12 del Decreto 221/2003, dicha beca debe concederse al candidato designado como suplente en la Resolución de adjudicación de 28 de diciembre de 2009, por el tiempo que resta a la renunciante y por el importe equivalente a dicho periodo.

Con fecha 11 de enero de 2010 Araitz Rodríguez Gutierrez, primera suplente designada por la Resolución de 28 de diciembre de 2009, ha presentado igualmente su renuncia.

En consecuencia,

RESUELVO:

Primero.– Hacer públicas las renuncias de Estíbaliz Etxaide Urbieta y Araitz Rodríguez Gutierrez a una de las becas de especialización en el ámbito de las Colectividades y Centros Vascos adjudicada por Resolución de 28 de diciembre de 2009, del Secretario General de la Presidencia.

Segundo.– Adjudicar dicha beca a Nora Unzueta San Martín, por el tiempo que resta y el importe equivalente a dicho periodo.

Tercero.– Contra la presente Resolución que agota la vía administrativa, se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia de la Comunidad Autónoma de Euskadi en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo diario oficial.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de enero de 2010.

El Secretario General de la Presidencia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.